

**Espedientearen kodea:** 2026ID550001

**Espedientearen gaia:** 0-2 urte bitarteko haurrentzat beren hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektiboan jangela zerbitzua jartzeko izapidetza

## JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

### 1. AURREKARIAK

Oíartzunen 0-2 urte bitarteko haurren zaintza eta garapena bermatzeko zerbitzua Haurreskolak Partzuergoaren bitartez kudeatuko da 2026-2027 ikasturtetik aurrera. Aurreikuspenen arabera, 0-1 urte bitarteko 2 unitate egongo dira eta 1-2 urte bitarteko 4 unitate; guztira, gehienez 68 haur hartuko ditu Oíartzungo haur eskolak.

Jangela ez da elikatzeko espazio huts bat; hezkuntza-proiektuaren erdigunean kokatzen den tresna pedagogiko eta hezitzailea ere izan daiteke eta horrela izatea nahi da Oíartzunen. Haurren lehen urteetako elikadura-ohiturak finkatzea, familien kontziliazioa erraztea, segregazioari bideak ixtea eta tokiko elikadura-sistema osasuntsua bultzatzea dira proposamen honen ardatz nagusiak.

### 2. INTERES PUBLIKOA ETA JUSTIFIKAZIO/EZAUGARRI SOZIALA

Eskumen propioa ez den jarduera ekonomiko hau Udalak bere egin eta abian jartzeak interes publikoko eta gizarte-antolaketako hainbat arrazoi nagusi ditu oinarrian:

- Familien kontziliazioa: 0-2 urte bitarteko haur-eskola, urte luzez, Oíartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bitartez eskaintako zerbitzuaren jarraipena izango da. Bataz beste, 0-2 urte bitarteko Oíartzungo 135 haurretatik erdiak pasatzen dira haur-eskolatik eta horrek argi erakusten du haur-eskola zerbitzua funtsezkoa dela familien kontziliaziorako.

Gainera, familien gehiengo handiak goiz-arratsaldeko ordutegiarekin erabili ohi du zerbitzu hori eta, zentzu horretan, jangela zerbitzua ezinbesteko osagarria da gurasoek lana eta familia bateragarri egin ahal izan ditzaten.

Hori horrela, jarduera horren erabiltzaile izango dira, alde batetik, Oíartzungo 0-2 urte bitarteko haurrak, baina baita, Oíartzunen erroldatuta egon gabe, beren hezkuntza-bidea Oíartzungo Haur Eskolan egiten ari diren harrak ere. Beraz, memoria honetan zehar erabiltzaileei erreferentzia egiten zaienetan, bi profil horiek hartuko ditu bere barne.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 51. eta 53. artikuluekin, besteak beste; izan ere, administrazio publikoei eskatzen die hezkuntzako ziklo eta etapa guztietan eskola-jangelen antolaketa sustatzeko, bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarria egiteko.

Bestalde, araudi hau bat dator Haurren Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoarekin; izan ere, haren 2. artikulua adingabearen interes gorena administrazio publikoen jardura guztietan lehentasunez kontuan hartu beharreko printzipio gisa ezartzen du, eta 11. Artikuluak administrazio publikoei eskatzen die haurrak egon ohi diren zentro eta zerbitzuen antolaketa eta gainbegiratzea bermatzea, haien eskubideak, osasuna eta ongizatea babesteko.

Azkenik, aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 97.9 artikulua, honek aurreikusten baitu ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-proiektuek elikadura osasungarri eta jasangarriaren balioak integratuko dituztela, jarduera fisikoa sustatzearekin batera. Eskola-jantokiak hezkuntza-proiektuaren parte izango direla, materialak eta gai komunak modu partekatuan landuz. Jantokiko langileek elikadurarekin eta ohitura osasungarriekin lotutako hezkuntza-proiektuen zati bat garatuko dutela.

Printzipio horiek Haurreskolak Partzuergoko hezkuntza-proiektuetan ere jasota daude.

- Osasun Publikoa eta prebentzioa: Nazioarteko osasun-jarraibideek azpimarratzen dutenez, norbanakoen elikadura-ohiturak hobetzeko ezinbestekoa da ingurune mesedegarriak sortzea eskoletan, komunitatean eta lan-eremuetan. Ingurune babesle eta osasuntsu bat egon ezean, aukera osasungarriak hautatzea oso zaila da. Eskola-jangelak ingurune estrategikoak dira haurrei txikitatik nutrizio altuko elikagaiak eskaintzeko eta bizitza osasuntsua bermatzeko.

Bestalde, gaixotasun kroniko ez-transmisibileen %95ak elikadura-ohiturekin lotura zuzena du. Produktuen kalitate nutrizionala bermatzea prebentzio-neurri indartsuena da etorkizuneko osasunean.

- Segregazioaren aurkako neurria:

Adin-tarte honetan (0-2 urte) ahosabaia eta elikadura-ohiturak finkatzen dira; beraz, elikagai fresko, osasuntsu eta prozesatu gabeetan oinarritutako menua eskuratzea ez da soilik beharra, oinarritzko giza eskubidea baizik eta inbertsio estrategikoa da haurren etorkizuneko osasunean.

Bestetik, jangela zerbitzua hezkuntza proiektuetan txertatzea haur horiek elikadura ohitura egokiak txikitatik eskuratzeko bermea ere bada. Haur guztiak menu orekatu baten bueltan bazkaltzen ikastea ohitura onak barneratu eta berdintasunean hezitzea da.

Azkenik, prezio publikoen bitartez eta udalak berariaz onar ditzakeen dirulaguntza zuzenen bidez bermatuko da jangelako zerbitzua Oñartzungo familia guztien eskura jartzea.

- Tokiko ekonomia eta lehen sektorea bultzatzea: Egun nagusi den nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboaren ereduak ingurumen-eragin handia dauka (ura eta lurra kutsatzea, CO<sub>2</sub> isuriak) eta elikagaien kalitate nutrizionala kalterako eragin dezake. Oñartzun mailan proposatzen den ereduak honakoak bultzatzen ditu:

o Zuzeneko Salmenta eta Bitartekaririk Gabetzea: Zero Kilometro zerbitzu-eredu baten bidez, Oñartzun eta Oarsoaldeko lehen sektoreko ekoizle txikien jarduera babesten da (Elika Kooperatiba, Arraztalo, etab.). Horrela, herriko eta inguruko nekazaritza-lurren erabilera eta belaunaldi arteko erreleboa sustatzen dira.

- Ingurumen eta klima-emergentzia errekursoak: Elikadura-zirkuitu laburrak erabilia, garraioaren CO<sub>2</sub> isuriak murrizten dira eta ekoizpen agroekologikoa lehenesten da, pestizida eta kimikorik gabea.

### 3. ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

#### 3.1 Jangela propioa, funtzionamendu orokorra eta menu egokituak

Jangela zerbitzuko menuak catering zerbitzu bitartez eskuratuko dira egunero, astelehenetik ostiralera, Haurreskolak Partzuergoaren egutegiaren arabera.

Jangela zerbitzuak 0-2 bitarteko haurren bazkariak soilik eskainiko ditu. Hezitzaileek ere izango dute menu horiek eskuratzeko aukera. Bazkariak ikasgeletaraino garraituko dira eta bertatik jasoko da erabilitako baxera otordua amaitutakoan. Hezitzaileen ardura izango da otorduak zerbitzatea.

Otorduak prestatzeko behar diren elikagaiak jangela-zerbitzua kudeatuko duen enpresak aurreikusi, erosi eta biltegitratuko ditu. Erosketa-irizpideak udalak zehaztuko ditu 4. puntuko kalitate-irizpideetan jasotako baldintzen arabera elikagaia bertakoa eta garaian garaikoa izatea lehenesteko.

Menuak jangelako erabiltzaileen ezaugarrietara eta beharretara egokituko dira, betiere, espezialistek adierazitako osasun- eta elikadura-eskakizunak beteta. Hiru hilabetero menu proposamenak Udalarari aurkeztuko zaizkio eta Udalaren onespena beharko dute.

Jangela zerbitzuak indarrean dagoen osasun- eta elikadura-legedia bete beharko du, besteak beste, biltegitratze, manipulazio eta garraioari dagokiona.

### 3.2 Zerbitzuaren kalitate-irizpideak

Zerbitzuak elikadura-burujaibetza eta agroekologiaren printzipioak jarraituko ditu, ondorengo irizpide teknikoak bermatzeko:

- Ekologikoa: Produktuen gehiengoa ingurumena zaintzen duten ekoizpen-sistemetatik etorriko da.
- Bertakoa (0 km): Oiartzualdeko eta inguruko ekoizleak lehenetsiko dira.
- Freskoa: Elikagai ultraprozesatuak eta aurrez sukaldatutakoak kanporatuko dira.
- Garaian Garaikoa: Naturaren eta urtaroen zikloak errespetatuko dira.
- Lehen Sektoreak Hornitua: Ekoizle txikiekin zuzeneko lan-harremana kudeatuko da.

Berariazko konpromiso nutrizionalak:

- Barazkiak eta Frutak: Egunero gutxienez 100 gramo barazki bermatzea menu bakoitzeko, eta garaian garaiko fruta freskoa (asteen 5 egunetik 4tan).
- Proteina Kalitatezkoa eta Mugatua: Animalia-jatorriko proteina murriztu egingo da, proteina begetalari (lekaleak) lekua eginez. Erabiltzen den haragia kalitatezkoa eta ekologikoa izango da (behiki ekologikoa).
- Mugak: Aurrez sukaldatutakoak gehienez hilabetean behin; frijituak eta azukre gehituzko elikagaiak ezabatu edo guztiz mugatuko dira.

### 3.3 Zerbitzua ezartzeko obren aurreproiektua eta instalazioen deskribapen teknikoa

Kasu honetan, ez da beharrezkoa obren aurreproiekturik egitea, zerbitzua ezartzeak ez baitu udal-instalazioetan obra edo egokitzapenik egitea eskatzen.

Era berean, ez da bidezkoa instalazioen kontserbazio-egoeraren deskribapen teknikoa edo egin beharreko berrikuntzen azterketa egitea; izan ere, udalaren instalazioetan ez da janaria prestatuko, catering-zerbitzuaren bidez hornituko baita.

Horrenbestez, menuak prestatu, hornitu eta garraiatzeko lanak kontratatuko den enpresa espezializatuak egingo ditu, kontratuaren baldintza-agirietan eta aplikatu beharreko osasun-, elikadura- eta kontratazio-araudian ezarritako baldintzak betez.

## 4. KUDEAKETA-EREDUAREN JUSTIFIKAZIOA (KANPO KONTRATAZIOA)

Jangela zerbitzua zeharbidezko kudeaketaren bidez bideratzea proposatzen da, ondorengo arrazoi tekniko eta administratiboak direla medio:

- Zeregin logistikoaren konplexutasuna: Tokiko ekoizle txikien sarea koordinatzea, ekoizpen-aurreikuspenak egitea eta astero genero-zerrendak kudeatzea gaitasun logistiko berezituak eskatzen ditu. Udalak ez du barne-baliabiderik lan hori zuzenean bere gain hartzeko.
- Laguntza tekniko eta dietetiko: Menuen analisisa egiteko, fitxa teknikoak osatzeko, gramajeak neurtzeko eta Osasun Sailaren ikuskaritzak betetzen direla bermatzeko, nutrizioan eta errestaurazio kolektiboan aditua den kanpo-aholkularitza eta zerbitzu egitura behar da. Udalak ez du indarrean dagoen legediaren arabera, elikagai horiek prestatu eta garraiatzeko baldintza eta baliabidea tekniko nahikorik. Horregatik, zerbitzua catering-en erregistroan alta emanda dagoen enpresa batek kudeatzea da egokiena.
- Ekoizleen homologazioa: Ekoizle txikiek osasun- eta administrazio-baldintzak betetzen dituztela bermatzeko eta ordezeko alternatibak (B planak) kudeatzeko enpresa edo erakunde kudeatzaile baten babesa ezinbestekoa da.

Ondorioa: Kanpo kontratazioaren bidez bermatzen da zerbitzuaren bideragarritasuna, kalitate nutrizionala eta osasun-irizpideak erabat betetzea, udalaren egitura pertsonala gainkargatu gabe.

## 5. BIKOIZTASUNIK EZAREN ETA ESKUMEN-AZTERKETAREN TXOSTENA

Kasu honetan, ez da beharrezkotzat jotzen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 16.7 eta 16.8 artikuluetan aurreikusitako txostenak eskatzea, ondorengo arrazoiengatik.

Lehenik eta behin, 2/2016 Legearen 16. artikulua udalerrii aitortzen die beren eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartu ez arren herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta komunitatearen beharrei erantzuteko jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak garatzeko aukera. Artikulu beraren 2. apartatuak ezartzen duen muga da udalerriek ezin dituztela beren gain hartu ordenamendu juridikoak berariaz beste administrazio-maila bati esleitutako jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak, bikoiztasunak saihesteko.

Aztertzen den kasuan, udalaren jarduera ez da Haurreskolak Partzuergoari edo beste administrazio bati berariaz esleitutako eskumen edo prestazio baten gainean jardutea. Haurreskolak Partzuergoaren eginkizuna 0-2 urteko haur-hezkuntzako zerbitzua ematea da eta ez du jantoki zerbitzurik ematen; aldiz, Udalak eskaini nahi duen jantoki-zerbitzua prestazio osagarria da, haurrei eta familiei zuzendutako laguntza-zerbitzu bat, eta ez da indarrean dagoen eskumen-banaketaaren arabera beste administrazio bati modu eskusiboan erreserbatutako jarduera. Ondorioz, ez da gertatzen 2/2016 Legearen 16.2 artikulua debekatzen duen bikoiztasun-egoera, eta, horrenbestez, ez da aplikatzekoa 16.7 eta 16.8 apartatuetan aurreikusitako txostenen araubidea.

Bestalde, subsidiarioki, kontuan hartu behar da 2/2016 Legearen hirugarren xedapen iragankorrak ezartzen duela udalerriek legea indarrean sartu zenean garatzen ari ziren jarduera, zerbitzu edo prestazioekin jarraitu ahal izango dutela, kasu horietan 16.7 eta 16.8 artikuluetan aurreikusitako txostenak eskatu beharrik gabe. Oiartzungo Udalak, legea indarrean sartu aurretik ere, udal haur-eskolan jantoki-zerbitzua eskaintzen zuen. Egia bada ere gaur egun zerbitzuaren antolaketa aldatu dela eta Haurreskolak Partzuergoaren bidez ematen den 0-2 urteko zerbitzuari lotzen zaiola, aldaketa horrek ez du berekin ekartzen jardueraren izaera funtsean aldatzea; aitzitik, aurretik ematen zen udal-prestazio baten jarraipena eta egokitzapena da. Horrenbestez, xedapen iragankorraren aplikazioa ere defendagarria litzateke.

## 6. TXOSTEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA (FINANTZA-IRAUNKORTASUNA)

Oñartzungo Udala Urmendi Partzuergoaren jabe izanik azken ikasturte guztietan izan diren gastu guztien jabe da. Beraz, gastuen estimazioa datu zehatzetan egiteko moduan da.

Aurreko urteetako datuetan oinarrituta aztertu da zerbitzuak udal-kontuetan izango duen eragina eta bideragarritasuna:

### 6.1. Janariaren erosketaren gastuak:

25-26 ikasturteko eskarmentuak sendotzen du kalkulua: 2026ko urtariletik uztaile arte janariaren erosketaren gastuak 29.432,99 € koak izan dira, hau da, 4.204,71 € hileko, x 11 hilabete = 46.251,84 €.

Kontuan hartu behar da kalkulu hau 0-3 urte arteko ikasleen gastuarena izan dela eta orain proposatzen den erosketaren bolumena 0-2 ikasleena dela.

Bestalde, oso nabarmena da 0 eta 1 urteko haurrek oso gutxi jaten dutela (kantitatea), 2 urtekoek gehiago, eta are gehiago nabarmen gehiago 3 urtekoek.

Proportzioan beraz, 58 ikaslerentzat (0-2 urte), 22.155 € aurreikusi dira kontzeptu honetan urteko.

Beraz, aipatutakoak kontuan hartuta, datu zehatzak dira Udalak, kontuan hartu dituenak alor honetan.

Gastuen estimazioa: Kontratua ikasturte batekoa izango da.

|                              |                    |
|------------------------------|--------------------|
| • Pertsonal gastuak.         | 41.000 euro        |
| • Elikagaiak:                | 22.115 euro        |
| Guztira:                     | 63115 euro         |
| • Zeharkako gastuak (%10):   | 6.311,50 euro      |
| Guztira:                     | 69.426,50 euro     |
| • Enpresaren irabaziak (%6): | 4.165, 59 euro     |
| Guztira:                     | 73.592,09 euro     |
| • BEZ (%10)                  | 7.359,21 euro      |
| <br>Gastuak guztira:         | <br>80.951,30 euro |

Beraz, arestian aipatutako guztiak kontuan hartuta, eta hiru hamarkadetan (31 urte) herritarren eskura egon den zerbitzu horren eskarmentuak, eta 26-27 ikasturteko matrikulazioak datu zehatzak eskaintzen dizkio Udalari, kontuan hartu direnak, gastu horiek aurreikusteko.

### 6.2. Finantzaketa-plana eta udal saila:

Udal-aurrekontuko zein sailetatik bideratuko den finantzaketa eta zerbitzuaren finantza-iraunkortasuna: Hezkuntza saila.

### 6.3. Prezio publikoak:

Zerbitzua familiek ordainduko dituzten kuotekin finantzatuko da ia bere osotasunean. Eguneko otordua 6,45 eurotan finkatzea aurreikusi da. Haurreskolak Partzuergoko haurrek ikasturtean 183 ikas-egun dauzkate. Urteko kuota orokorra eguneko prezioa ikasturteko ikas-egunekin biderkatuta kalkulatu da, egokitapen-faseko egunak kenduta. Ordainketak 11 hilabetetan zatituko dira.

Eguneko otorduaren 6,45 eurotan finkatzea erabat justifikatuta dago, eta aurrekari errealetan oinarritzen da, prezio hori baita indarrean egon dena 25-26 ikasturtean.

#### 6.4. Diru-sarreraren kalkulua:

Zerbitzua familiek ordainduko dituzten kuotekin finantzatuko da ia bere osotasunean. Eguneko otordua 6,45 eurotan finkatzea aurreikusi da. Haurreskolak Partzuergoko haurrek ikasturtean 183 ikas-egun dauzkate. Urteko kuota orokorra eguneko prezioa ikasturteko ikas-egunekin biderkatuta kalkulatu da, egokitzapen-faseko egunak kenduta. Ordainketak 11 hilabetetan zatituko dira.

$$58 \text{ ikasle} \times 6,45 \text{ eguneko/otorduko} \times 183 \text{ ikas egun} = 68.460,30 \text{ € ko diru-sarrerak}$$

Eguneko otorduaren 6,45 eurotan finkatzea erabat justifikatuta dago, eta aurrekari errealetan oinarritzen da, prezio hori baita indarrean egon dena 25-26 ikasturtean.

#### 6.5. Merkatu azterketa egiteko premia:

Merkatu azterketa egiteko premiarik ez da ondorioztatzen honako arrazoi hauengatik:

- ✓ Oiartzungo Udal Ikastolaren Partzuergoaren hiru hamarkadetan (31 urte) herritarren eskura egon den zerbitzu horren eskarmentuak, datu zehatzak eskaintzen dizkiolako Udalari, kontuan hartu direnak, aldagai guztiak aurreikusteko.
- ✓ Oiartzungo Udala Urmendi Partzuergoaren jabe izanik azken ikasturte guztietan izan diren gastu guztien jabe da. Beraz, gastuen estimazioa datu zehatzetan egiteko moduan delako.
- ✓ Aurreko urteetako datuetan oinarrituta aztertu delako zerbitzuak udal-kontuetan izango duen eragina eta bideragarritasuna:
- ✓ Zerbitzua familiek ordainduko dutelako kuotekin eta finantzatuko delako ia bere osotasunean.
- ✓ Eguneko otordua 6,45 eurotan finkatuta dagoelako azken ikasturtean (25-26 ) eta berdin mantenduko delako 26-27 ikasturtean.
- ✓ Diru-sarreraren kalkulua datu zehatzekin egin delako:

$$58 \text{ ikasle} \times 6,45 \text{ eguneko/otorduko} \times 183 \text{ ikas egun} = 68.460,30 \text{ € ko diru-sarrerak}$$

#### 6.6. Udalaren kontu-oreka:

Zerbitzua ia bere osotasunean finantzatuko da familiek ordainduko dituzten kuoten bitartez. Zerbitzua urtean 58 familiak erabiliz gero, 12.491 euroko defizita ordaindu beharko da udal aurrekontutik. Ondorioz, zerbitzua abian jartzeak ez du Udalaren finantza-iraunkortasuna edo gastu-muga arriskuan jartzen.

Espedientean kontu-hartzailearen txostena jasoko da.

## ALDERDI JURIDIKOA

— Hauek dira zerbitzua ematearen ezaugarriak:

Oiartzungo Haurreskolan eskolatutako 0-2 urte bitarteko haurrei zuzendutako jantokiko zerbitzu publikoa ematean datza zerbitzua, hezkuntza-zerbitzuaren osagarri gisa, eskola-egunean elikadura osasungarria eta egokia bermatzeko. Elikagaien segurtasunari, osasun publikoari, kontratazio publikoari eta toki-araubideari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera emango da zerbitzua, bai eta horretarako onartzen den zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren arabera ere. Zerbitzuaren erabilera borondatezkoa izango da familia erabiltzaileentzat, eta prezio publikoaren bidez finantzatuko da, Udalak, hala badagokio, ezar ditzakeen laguntzei kalterik egin gabe.

— Zerbitzua emateko administrazio-sistemaren hautaketa eta enpresaren antolamenduaren eskema zehazteari eta arrazoitzeari dagokionez, honako hau ezartzen da:

Zerbitzuaren zeharkako kudeaketa zerbitzu-kontratu bidez egitea proposatzen da, Udalak ez baititu menuen plangintza, hornikuntza, elaborazioa, garraioa eta elikagaien kontrol tekniko-sanitarioa zuzenean bere gain hartzeko behar diren baliabide pertsonal eta materialak. Enpresa espezializatu bat kontratatzeak aukera ematen du osasun- eta elikadura-araudia betetzen dela bermatzeko, nutrizio eta sukaldaritza kolektiboaren arloan beharrezko laguntza teknikoa izateko, tokiko ekoizleekin hornidura koordinatze eta zerbitzuaren jarraitutasuna eta kalitatea ziurtatzeko, udalaren antolaketa-egitura handitu gabe.

Era berean, zerbitzua arautzen duen erregelamendu-proiektua erantsi da. Bertan, honako hauek ezartzen dira, besteak beste: erabiltzeko baldintzak eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Arestian adierazitako guztiaren arabera, proposatzen da, tokiko interes publikoetarako aukerarik egokiena eta udalaren administrazio-antolamenduari gehien egokitzen dena delako, zerbitzua zeharka zerbitzu-kontratu bidez kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriari jarraiki.

Espedientean idazkariaren txostena jasoko da.

## ONDORIOAK

Udal hezkuntza sailak egindako txostenean proposaturiko zerbitzua lege ezarritako alderdi guztietatik aztertu da. Lehenik eta behin udalak propioa ez duen eskumena garatzeko, interes publiko eta justifikazio sozialaz gain, honako oinarria legalarekin bat datorrelako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako 1/2023 Legearekin, Haurraren Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearekin bat.

Memoria honetan aztertu dira apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 97. artikuluan ezarritako alderdiak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 96. artikuluekin bat etorritik, Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haurrentzat beren hezkuntza- eta zaintza-ingurune pertsonal eta kolektiboan jantoki-zerbitzua emateko jarduerak ekonomikoa ezartzeari dagokionez.

Horrenbestez, honako ondorio hauek jasotzen dira:

— Alderdi sozialari dagokionez: Justifikatua geratu da zerbitzua interes publikokoa dela, familien kontziliazioa, haurren osasuna eta ongizatea, aukera-berdintasuna eta tokiko garapen jasagarria sustatzen dituelako.

— Alderdi juridikoari dagokionez: Justifikatua geratu da zerbitzua ezartzea eta zeharkako kudeaketaren bidez ematea bat datozela aplikatu beharreko toki-araubidearen, kontratazio publikoaren eta gainerako aztertutako araudiaren eskakizunekin.

— Alderdi teknikoari dagokionez: Justifikatua geratu da proposatutako antolaketa teknikoa egokia dela zerbitzua behar bezala emateko, kalitate-, nutrizio-, osasun- eta segurtasun-baldintzak bermatuz, eta, zerbitzua catering bidez emango denez, ez dela beharrezkoa obren aurreproiekturik edo udal-instalazioen deskribapen teknikorik egitea.

— Finantza-alderdiari dagokionez: Justifikatuta geratu da zerbitzua ekonomikoki bideragarria dela eta ez duela udalaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen.

Arestian azaldutakoaren arabera, ondorioztatzen da zerbitzua ezartzea komenigarria, egokia eta bideragarria dela Oiartzungo Udalarentzat, ikuspegi sozial, juridiko, tekniko eta finantzariotik.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Azterketa Batzordeko kideak

Elektronikoki sinatua



**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas**

**Titulua / Título:**

2026ID550001-Memoria/Memoria ()